



GR-11 LYMEREN SENDAGAI

Kilometroak sendagai bilaka ditzagun denen artean!

Ibai Iturria Garmendia mendizale Beratarrak proiektu sozial hau sortu du. Azken urteetan mendian eskarmentu handia izan duen gazte honen lehen egitasmo soziala izango den arren, orain arte bestelako proiektuetan ere parte hartu du. Alpeetako mendirik altueneko tontorra egitetik, Hego-ameriketako mendietan barrena ibili eta Europako mendirik garaiena konkistatzea izan dira azken erronka esanguratsuenak.

GR-11 pirinioen zeharkaldiak, Estatuko pirinio guztia arakutzen du Cabo Creusetik Cabo de Higuerrera arte. Bide honek 780 kilometro baino gehiago hartzen ditu eta hauetariko gehienak mendi inguruneok dira. Marka zuri gorriek seinalatzen duten ibilbide honek, Katalunia, Andorra, Aragoi, Nafarroa eta Euskal Autonomi Erkidegoa zeharkatzen ditu. Bere asmoa, ekainaren 7tik 23ra bitarte GR-11 ibilbideko 17 etapa zeharkatzea izango da. Hala ere, hamazazpi egun iraungo duen desafio honetan, helburua ahalik eta kilometro gehien egitea izango da, gutxienez 570 kilometro egingo dituelarik. Mendizale honek, Hondarribiatik hasi eta Andorrara iritsi arteko bidea egitea aurreikusia du.

Bidea bakarrik egingo duen arren, Alyme elkarteko kideak izango ditu bidelagun. Beraiekin bat eginez sortu baitu egitasmo hau. Proiektu honekin ahalik eta diru gehien biltzea izango da helburua, erronka pertsonal bezala hasi zen proiektu hau erronka sozial batean bilakatuz.

Horretarako, etapetan zehar egiten dituen kilometro guztiak ordaintzen ahalko dira Alyme elkarteari ahal bezainbesteko diru-laguntza emateko gisan. Norberak kilometroko nahi duen hainako donazioa egiten ahalko du eta bildutako diru guztia elkarrearentzako izango da bere osotasunean.

Egitasmo hau, Lyme gaixotasuna dutenei zein beraien familiei babes emateko baliatuko da, baita eritasuna ezagutarazi eta ikerkuntzan laguntzeko ere. Baina, garbi utzi nahi du egitasmo honen helburu nagusia, prebentzioa izango dela. Lyme gaixotasuna zergatik sortzen den eta mendian ibiltzean nola babestu helarazi. Hau lortzeko, elkartearen kontu korronteko zenbakia jarriko da zuen eskura, bakoitzak nahi duen donazioa egin dezan.

Hona hemen Alymeren kontu korrontea donazioak egiteko: Bankoa – ES09 0138 0010 40 0020719877